

«Izan zaisten gucioc sanduac»

Euskararen testu hegoaldekoenetakoa izan daitekeena aurkeztu dute Deikazteluko etxe bateko ganbaran.

Pello Etxaniz filologoak aztertu du, eta Lizarra inguruko euskararen idatzirikoa izan daitekeela ondorioztatu du.

Lizarraga Elkanokoaren edo Utergako abate Beriainen maila ez du izango, baina Deikaztelun aurkitutako *Año Christiano ó ejercicios devotos para todos los domingos y fiestas movibles del año* izeneko liburuaren pasarte baten euskarazko itzulpenak datu gehiago eman litzake desagertu hurren dagoen goinafarrera hegoaldeko deritzon euskalkiari buruz, baita horren testu gutxi utzi dituen Lizarra inguruko euskarari buruz ere. *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian argitaratutako testua, izan ere, euskaraz aurkitu den hegoaldekoenetakoa izan daiteke.

Deikazteluko ganbara batean agertu zen, duela bost urte. Liburuak kiloka erosten zituen dendariaren eskuetan erori eta honek Lizarrako Ikastolara eraman zuen, ikus zezaten. Batzuek bitxikeriatzat jo zuten, baina Pello Etxanizi txiribitak atera zitzaizkion, jatorrizko liburuaren data oso esanguratsua zen eta: 1778a. Ordurako jada euskararen galera prozesuaren marra Lizarratik iparraldera zegoen, eta Deikaztelun —hau da Lizarratik hegoaldera— aurkitu izanak bazuen, beraz, zera. Noiz eta nork idatzia zen eta zein entzuleri zuzendua zen, horiexek argitu beharreko dudak.

Garai hartan apaizek sermoiak egiteko erabiltzen zuten liburuxka da *Año Christiano* delakoa, eta, Etxanizek dioenez, «ia apaiz guztiek» jasotzen zuten.

Liburutegia Tomas Etxeberriarena zen. Etxeberria 1868an Allon jaio-tako apaiz bat zen, Deikaztelun bertan ez ezik, Arronitzan eta Artaxoan ere egondakoa (Lizarratik hegoaldera dauden herriak denak). Familiak argitu zion Etxanizi hark ekarritakoak zirela liburuak eta idazkiak, baina testua ez zitekeen Etxeberriak berak mol-datua izan, 1805eko data bai-



JOXE LACALLE

Pello Etxaniz fillogoa. Berak egin du testuaren azterketa.

tzuen itzulpenak, orriaren ertzean.

Egile ezezaguna

Beraz, egilea nor izan zitekeen atzeman ezinik —«zaila zen jakitea liburuak parrokia horretakoak, hau da, Deikaztelukoak ziren, edo apaizak alde batetik beste-

ra eraman zituen», Etxanizek idazkia aztertzeari ekin zion. «Garrantzitsua iruditu zitzaidan frogazakeelako uste baino hegoalderago zegoela euskalkiaren muga, edo euskalkia bera noraino iristen ere atze-

man zitekeelako horrela». Orain amaitu du azterketa, eta bota du iritzia: «Lizarraldekoa da, nahiko garbi, Gares ingurutik edo Lizarra ingurutik ere».

Azterketarako, garai hartako eta inguru hartako testuekin egin du konparaketa. Batez ere Bonaparte printzeak joan den mendean Garesen

TESTUAREN garrantzia ez da soil-soilik joan den mendean desagertutako hizkeren berri eman ahal izatea, baina baita Gares edo Lizarra bezalako inguru enblematikoe-tako euskara hobeto ezagutzeko parada eskaini ahal izatea.

Deikaztelun aurkeztutako testuak ez du hurkorik, garai horretan eta inguru horretan ez baitago haren muntako idazkirik. Ezagutzen dela, soilik Bonapartek jasotako itzulpenak dira Gares inguruko lekukotasunak, kenduta gaur egun arte, eta erdarraren galbahetik pasatu ondoren, iritsi diren herri tradizioarekin lotutako zenbait bitxikeria. Lizarraga Elkanokoaren lan garrantzitsua ahaztu gabe —honek gai erlijiosoak landu zituen batik bat, baina baita poemak ere— Muruzabalen aurkitutako sermoiak —bertakoak ote diren jakin gabe

eta inguruan eginiko enkar-guzko itzulpenekin, Lizarraga Elkanokoaren testuekin, eta Oltza inguruan eta Garesen dauden lekukotasun zenbaitekin. Etxanizek azpimarratzen duenez, gehiago dira Lizarrara hurbiltzen duten ezaugarriak, Iruñerrira eramaten dutenak baino. Esate baterako, aditzen lehenaldiko

oraindik—, Muzkikoak, Eraulen topatutako esaldi bat edo beste, Artaxoakoa omen zen Aingeru Irigaraik Ameriketara bildutako kanta, ezkontza formulak... ez dago askoz gehiago. «Gisa honetakoa eta inguru honetakoa, deus ez», Pello Etxanizek azpimarratzen duenez.

Testuaren azterketa zehatzak ere arrasto gehiago eman dizkio filologoari itzulpena egin zuenaren inguruan. «Erabiltzen duen idazkerarengatik herritarra da, ez baitu oso euskara landua. Erdaratik zuzenik pasatua da. Ez zuen ohitura handirik euskaraz aritzeko, izan zezakeelako idazle klasikoren baten eragina, eta ez du. Nik uste dut herri txiki batekoa zela, baina nortasunaren berri jakiteko grafologoak beharko lirateke eta igual ezta horrela ere ez genuke lortuko», nabarmentzen du.

markarik eza, edo aditz nagusia eta laguntzailea elkartzea, edo norekin kasuan -ki atzizkia erabiltzea... «Antzekotasun handienak Gareskoarekin dauzka, baina horkotik bereizteko bitxikeriak ere badira. Mapa batean jarrita, ez Gares, ez Lizarra, baina inguru horretakoa, hego-mendebaldera, litzateke».

Kontuan hartuta hegoalde-tik hain zuzen ere iritsi dela euskarak mendeetan zehar izan duen gibelatze nabarierena, testuaren balioa handia da. Etxanizek «adituen» esku utzi nahi izan du, bederen, jorra eta begira dezaten.

Alberto Barandiaran
IRUÑEA

Euskalkiaren muga
■ ■ ■ Testuak frogazake uste baino hegoalderago zegoela euskalkiaren muga garai horretan, edo noraino iristen zen